



## INDALECIO OJANGUREN XXXIII. ARGAZKI LEHIAKETA 2020

011/2020 ARGIZAIOLA LEHIAKETAREN  
SAILKAPENERAKO BALIAGARRIA  
Euskal Herriko Argazkilaritza Federazioaren  
Sariak Euskal Herriko argazkilariei.

Eibarko Udalak, Klub Deportiboaren laguntzaz,  
2020ko Indalecio Ojanguren XXXIII. Argazki  
Lehiaketarako deia egiten du.

### + OINARRIAK

#### PARTE-HARTZAILEAK

Nahi duten guztiak.

#### GAIA

Norberaren aukeran.

#### LANAK

Gehienez ere **3 argazki zuri eta beltzean, eta 3 koloretan. Inoiz saritu gabeak** izan beharko dira.

#### IZEN-EMATE ESKUBIDEAK

Doakoak.

#### AURKEZPENA

Lanak 40 x 50 cm.-ko kartulinarekin edo kartoiarekin indartuak aurkeztu beharko dira, eta argazkiak gehienez ere **30 x 40cm.-koak** izan beharko dira. Lan bakoitzaren atzealdean **lanaren izena** zein den azaldu beharko da. **Egile bakoitzak izen berbera jarri** beharko die aurkeztzen dituen argazki guztiei. Argazkiak hurrenkera jakin batean ikustea nahi izanez gero, **zenbakituta** aurkeztu beharko dira.

**Egilearen datuak** -izena, abizenak, NAN-AIZ..., posta helbidea eta elektronikoa, telefonoa eta, hala balitz, zein elkartekoa den - **kartazal itxi batean** joan beharko dira, eta kartazala paketearen **kanpoaldean** erantsita. Kartazalean lanen **lema** jarri beharko da.

Lanak helbide honetara bidali beharko dira:

**EIBARKO UDALA**  
**KULTURA ARLOA**  
**INDALECIO OJANGUREN XXXIII. ARGAZKI LEHIAKETA**  
**PORTALEA - Bista Eder, 10**  
**20600 Eibar**

Postaz bidaliz gero, **ziurtaturik** igorri beharko dira eta **gasturik gabekoak** izango dira.

#### EPAI-MAHAIA

Argazki mailan oso ezagunak diren **hiru pertsonen** osatuko dute. Izenak bere garaian ezagutaraziko dira.

#### ERABAKIA

Erabakia **jendearen aurrean** emango da eta irekia izango da. Erabakia **ukaezina** izango da eta jakinaraziko da udal web orrialdean,, [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus).

## ERAKUSKETA

**Sarituak** izan diren lanak **Udalaren Portaleko Erakusketa Aretoan** erakutsiko dira. Gainontzekoen artean ere, batzuk aukeratuko dira ikusgai ipintzeko.

## KATALOGOA

Saritutako lanekin katalogo bat argitaratuko da. Bertan, nortzuk parte hartu duten ere azalduko da eta **parte-hartzaile bakoitzari bidaliko zaio**.

## LANEN ITZULKETA

**Saritzen diren lanak Udalaren esku** geldituko dira eta Udalak lanak erabiltzeko eta argitaratzeko eskubideak gordeko ditu, baina hori bai, beti norenak diren aipatuz. **Saritu gabekoak, erakusketa itxi eta 60 egunen buruan** itzuliko dira.

## OINARRIAK

- Partaide bakoitzak ezingo du sari bat baino gehiago jaso.
- Antolatzaileek lanak ongi zainduko dituzte, baina ezustean kalteren bat gertatuko balitz ez dute inongo erantzukizunik hartuko.
- Epaimahaiak ahalmena du oinarri hauek ulertzerakoan izan daitekeen ezusteren baten aurrean erabakirik egokiena hartzeko.
- Lehiaketa honetan parte hartzen duenak oinarri hauek goitik behera jarraituko ditu.

## EGUTEGIA

Lanak aurkezteko epea: **2020ko irailaren 1etik 30era**.

Erabakia: **2020ko urriaren 10a**.

Sari-banaketa: **2020ko urriaren 30a**.

Erakusketa: **2020ko urriaren 30etik azaroaren 22ra**.

## SARIAK

### Ohorezko Sarria

Argazki bilduma onenari

Koloretan edo zuri-beltzean ..... 500 €, garaikurra eta Portalean erakusketa egiteko aukera.

### “Indalecio Ojanguren” Sariak

Lehen mailako 4 sari.

Koloretan edo zuri-beltzean

Argazki solteei ..... 125 €

### Euskal Herriko sariak:

Koloretan edo zuri-beltzean, argazki solteei

Lehenengoari .....125 €

Bigarrenari ..... 110 €

Hirugarrenari ..... 100 €

### Herriko Sariak

Koloretan edo zuri-beltzean, argazki solteei

Lehenengoari..... 100 € eta garaikurra.

Bigarrenari..... 80 €

Hirugarrenari..... 50 €

**8 eta 16 urte bitarteko partehartzaileen** argazki onenari **saria** .....100€ argazkigintza materialetan.

## + INFORMAZIOA

EIBARKO UDALA

KULTURA ARLOA

PORTALEA - Bista Eder, 10 20600 Eibar

Tel. 943 708 435 [kultura@eibar.eus](mailto:kultura@eibar.eus)

[www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)